

AITA S. PRANTZISKO'REN



Bederatziurrena

M. 71772
F. 75718

ATV RNT
32626 . 61000

ASIS'KO AITA SAN PRANTZISKO SERAPIÑA'REN

BEDERATZIURRENA

Lenengo Ordea'ko (Zusenbideko)

Aita batek egin ebanetik

Aita S. Prantzisko'ren Irugarren

Zusenbideko seme elexgizon

batek artutakoa

(ELEXIAREN BAIJAGAZ)



1913

DURANGO'N

FLORENTINO ELOSU'ren irarkolan argitaratua.



San Pranzisko'ren Onetsia

Ka, ke, ki, ge, gi, txa, txe, txi, txo, txu
irakurri egizuz

Ca, que, qui, gue, gui, cha, che, chi, cho, chu lez.

SARRERA

San Prantzisko'ren bederatziurren au, Zaurijak goratuteko bureztun eta Eskari, azkenian ipiñiko direnak Barcelona-ko Biblioteca Franciscana deritxon irastegijak argitaratuteko Lenengo Zusenbideko Aita batek egin zituzanetik artuta dagoz.

Bederatziurren onetan S. Prantzisko'ren goratasunak batez bere irekaste dira. S. Paulo'k esateban *Jesus Kurutzean josija irekaste dogu* (1). Asis'ko Serapiñak bere, orixe irekatzi jagaz seme alaba ta nai eben guztijai, altasun andijak eta zerua irebazi zituan, S. Juan Krisostomo'k di-noan lez, kurutzea dalako zerua edegiteko giltza (2).

Ganera iratsi biar dot, or ipiñten dana, dagoan erara jarri dodala, euskera bakarrik al daben lez dakijenak berera aditu daijen.

Errez aurkitu leikez, erderazko itzak ugerijago ipiñtea nai dabenak, izan leite, uste dabelako (*uste erratua*) eurak lez erderia umetatik ikasi

(1) *Predicamus Christum Crucifixum.* 1 Cor. 1, 23.

(2) *Crux Christi clavis est paradisi.* Homil. in Luc. de virg.

ta erderazko irastiak eskuetan eta begijen aurrean erabilia, artean oituten dituen erderazko itz guztijak adituten dituela ta ez euskerazko lendikoak eurak bere. Orretarikoak elduten dira itxi euskerazko itz edonok adituten dituenak eta euren ordeaz erderazkoak erabiltera giño, esaterako *errepuesta* itza *erantzueran* ordiez.

Ori egiten dabe, euskeria ikasten neke apur bat artu nai eztabenak, euskeriari gorrotoa deutenak, baita bat edo bestek egitea izan leite, euskera baño ezta kijenen artean jakituntzat artu daijezan, bestela euskera baño ezta kijenak eta erderia ain ondo ezta kijenak *errepuesta* ta ori lako itzen aldean, *erantzueran* ta bereu lakoak obeto adituten ditue.

Badira, itz barrijak asmetan zaleak direnak. Bier uneda ori erdalzaleak ontzat eztauke, ezta gitxiagorik bere.

Euskera garbiko itz bape dana lendik egon ezkeron, barririk asmetan elitzateke ibili biar, bestela itz barrijak asmetia izketa guztietan oituten dan gauzia dalata nago. Ortik dator izketak eunki batetik bestera alde eukitea.

Itz barrijak asmetako zaletasun ori euskeldunen artean lendikoa da, esaterako Bidasoa'tik aransko *ortzeguna*, Gipuzkoako *osteguna* ta geure *eguna*, egun bardiña adierateko itzak dira. *Bariku* eguna ezagutu eragiteko itzak, alde andijago edo txikijagoagaz, amaika gitxienez dira. Beste itz batzukaz bardin samar jasoten da. Gauza bardiña adierazoteko itzetan, alde geija-

go dauken izketarik ezagututen ete da?

Ortik atera leike, itz barriak asmau ezkerobiar dan lez, txartzat ezkendukezala euki biar. Ganera gauza bakotxa adierazoteko, euskeldun guztiok itz bardiña artutea egokijen litzateke, esaterako lenengo ikasbidean *eguen* itza, ta besteak kendu.

Azkenez irastera noia, euskera bakarrik daki-jenentzat eta erdera lorriña baño eztakijenen-tzat, euzkerazko itz barriak, nai erderazko adi-tuten eztirenak bardin lez direla. Neure ustes euskerazko barriak ariñago aditu leikez gura dabenak, esaterako erderazko *heraldo* baño eus-kerak garbiko *ujugilea*. Azkuek *oiugilea* ipiñten dau.

Aitetu diren tariko itz barri edo zar barriztau batzuk, azkenian ipiñiko dodan *Iztokijan* azaldu-ta ikusi ziñaikez.

Emen bakarrik iratsiko dot *ordena* itzen le-kuan *Zusenbide* jarri dodala. Batetik *ordena* itza gauza asko adierazoteko oituten dalako.... Bestetik *Zusenbide* itzaz guztis berera edonok aditu leikielako S. Pranzisko'ren *Lenengo*, *Bigarren* eta *Irugarren Ordena* edo *Zusenbideak*, geu ze-rura errez joateko bide edo mailladiak direla.

Izketako gauzetan ez baijak itxi ta apur bat gora bera guztijok bateratutea oba genduke. Orretara maitetuko genduke obeto ta geijago geure euskera, siñiste ta ekandu onak zaiñduten dituana.


Zarauz'ko Elexan azkenengo irilgo Euskal-

jolasetan, Liborio Aspiazu onbidetzuak, ara emen zer esan eban.

Bere inguruko (batez bere Prantzia) ta urrutiko jendeen gorabera oetatik gure Euskalerrri maitea libre ta gordia izan da oraindaño, ta iruditzen zat amaseigarren gizaldiyan bezin irme ta sendo zegoala bere erlijio santuban emeretzi garrenian. Zerk egin duan mirari ori erraz da agertzen; gure euskerak egin du ta berari zor aiyogu, Jaungoikuaz gero, grazi ta doai ori. Gure euskera izan da parete ategabia, gorde gaituana fedearen etsayetatik, ta orain bazter au erlijioaren gereizpean daukana.....

Azkenez iratsi biar dot Elexiaren eskuetan lantxu au ipiñten dodala, nai eztodala baño ezpadabe, geure siniste ta ekandu onak galduteko irekatsirik euki eztaijan, gero argitaratuteko berak nai daben lez.

Ajanguiz-en 1913.^{ko} Orrilaren 27.^{an}





AITA SAN PRANTZISKO SERAPIÑAREN BEDERATZIURRENA

LENENGO EGUNA

Kurutze santuaren...

MAITETASUNEZKO GARBALJA

Jaungoiko Betikoaren Seme Jesu-Kristo neure Jauna, maitetasun geijegia agertutearren, geure aragija artu ta gizonen artean bizitea erabagi zenduana. Zeure aurrean auspazturik autortuten dot, Zeure eskuetatik artu dodazan gauza on zenbat direan bere eztakidazan guztijetara eskerbakoa izan nazala.

¡Neure Jesus maitea! Zeugan sinistu ta itxaroten dot, beste gauza guztijak baño geijago maitetuten zaitudala, Zeuri ireuna emon deutzudalako, biotz guztiko garbajja (damua) daukat eta neure erru andijen parkaziñoa eskatuten deutzut. Orretarako Jesus eta Maria oso garbijaren laguntasun egileaz, geijago obenik (pekaturik) ez egiteko asmu sendoa artuten dot.

Marija arteztzaile gorengoa, lur onetakogaz bardiñdu ezin zeinkezana, Aita zeruko Bakaldun (Errege) Gorengoaren Alaba ta otseña, Jesu Kristo geure Jaunaren Ama guztis Santea, Espiritu Santuaren Emaztea, zeure bitartekotasun indartzuaz egizu San Migel goiangeru zorioneko, beste angeru ta santu geu zerura joatea nai dabenen eskarijak alperrikoak izan eztaitezala. Marija abegi ona egiten badeuskuzu, zeure Seme bigun eta geure Jaunak here egiñgo deusku. Zeugaitik gurtasun eta goratasuna berari emoten deutzaguz. Alan izan dedila (1).

S. Prantzisko'ri eskarija

Jesus geure Eroslearen irudi (imagen) bizi, onbidearen (birtutearen) ikasbide (ejemplo) ta lurreko Serapin zorioneko San Prantzisko neure Aita. Zeure izate goratu ta Jaunak emon eutzuzan aberaztasun andijak gogartetu (meditau) gura doguzan lez, zeure bitartekotasun berarizkoa (espeziala) eskatuten deutzugu, argitasuna eurak ezagututeko Jaungoikoa gandik geugana ekarri daizun eta biar dogun naija, zeure irekatsijak egin eta zeure ikasbiden antzera bizi gaitezun. Jaungoikosko maitetasunaren sua geure gogoan (ariman) biztu daitiela Jaungoikoari eskatu egiozu, urturik maitetasun ain atzegiñgarrijan, lurreko gauzak itxi ta Jaungoikosz aiñbat geijen bat egiñik bere nai santua bete daigun. Alan izan dedila.

(1) Marijari egiteko eskari au Aita S. Prantzisko'k egin eban.

GOGARTEA.—*Aita S. Prantzisko Serapiñaren zeregiña aurretijaz erabagirik egoan.*

Begiztatu (konsideran) egizu Jesu-Kristo geure Jauna Elexia lenengos ipiñi ebanetik gora, bera sendatu ta edertuten beti atzegiñdu dala. Orretarako bialdu ditu izate banakak lakoa (extraordinarios) daukenak, eta biar izan ezker ezerezetatik atarako leukez gogo (arima) santuak, Elexiari eutsiteko aurretijaz artu daben ardura bizi ta maitekorra edonun agertuko leukenak. Bere erraijetako maitetasunaren gogo orrekaz, Jesus atzegiñduten da, ta gizonen begiragarritzat lurrera bialduten ditu. Izate orrek astertu ta aratuten doguzanian ezin aurkitu ginaijoe ain errez dauken ezaugarri berarizkoa, Jaungoikoak eura-ri bakarrik emoten deutzezalako daukezan orni-dutasun ugerijak, ez aiñbeste euren edergarritzat, ezpabere beren emazte Elexia apaiñduteko.

Jesus ezker, olako gogo gitxik lakoa daukenak gizaldi guztijetan beti agertu dira, ta gizarteko siniste ta ekandu onak ondatu agiñian aurkitu diranian Jaungoiko errukiorrak, gizon oraiñdik banakanduagoak bialdu ditu. Orretariko gogo izentauen artean S. Prantzisko edertasun guztis andikoa da, lurrekorik ezebeztauko, berezganetuta (sobrenaturalizado) guztia daukelako. Santugaz Jaungoikoak Elexia jazo nai izan badau, esan leike S. Prantzisko'gaz egin dabela.

Gizonen antza eukiarren, S. Prantzisko Jesus'ek barriztauta dago.

Geure Egilearen irudija, gizonen biotzetatik ija aldenduta egoan, eta bere Semiaren irudi Jaungoikoskoa euren aurrean Jaunak ipiñi nai eban. Zeregin orretarako S. Prantzisko izentau eban. Zeruko indar eta doe banakak euki daroiezan tarikoakaz bere barrua bete eutzan, eta Jesus'en antz ugerijakaz, batez bere Zaurijakaz, azaletik inguratu eban. Ganera ordurarte iñok euki etsituan tariko abegi ta begira garritasuna emon eutzezan. Gogo asko izan arren izentau ta maitetuak, S. Prantzisko'ri beste maitetasun agertutakoak gitxi izango dira. Geure Eroslearen antz ain bizia daukenik ija bat bere eztagolako.

Gizonen ikasbidetzat bere, S. Prantzisko Jaungoikoak ipiñi eban. Antzbide (modelo) oso ornidua ta antza emoten guztis gatxa egijaz dala. ¿Ezta gatxagoa, Jesus'ek geure aurrean ipiñten deuskuna, dirauskunian *Zeuen Aita zerukoa ornidua dan lez, zeuek bere orniduak izan zaiteze?*

Ikasbidetzat ipiñten bajaku Santutasuna izatez dana, ezta besterik ez lako gauzia gizaldijetan eskinitea antzbide gorengoetarikoa, naita gorengoa bestekoa ez izan.

Elexiaren edergarritzat maitetasun berarizkoaz Jaungoikoak izentauriko gogoen artean, bakarrik uneda izentauan gero baztertuteko, batzuk antzbide egileak izan leikez. S. Prantzisko'gaz ezta ori jazoko, bizi zan arteko ikasbidea bakarrik etzalako izan, ezpabere baita ordurik gaur

artekoa ta bere semien antzbidea dalako betikoa izango da. Orretarako gizaldijak dirauben artean bere zerurako Zusenbideak iraungo dabe ta San Prantzisko antzbide ta ikasbidea izango da.

Ara or agertuta S. Prantzisko aurretijaz begiragarritzat izantauta egoana, baita Jaungoikoa ta gizonakanako eukan zeregiña berez ganetikoa zana bere.

Irakurritakoa apur baten gogartetu egizu ta zeuk gura dozun laguntasuna uste bete ta gartzuaz eskatu.

Egunaro azkenian egiteko eskarija

¡Maitetasunezko Serapin S. Prantzisko zorionekoa! Bere ontasunaren aberastasun zenbat dirian esan ezin leikezanakaz zeu betetako, aiñbesten artean izentetan zaituzala, beren pozkarijak Jaungoikoak agertu ditu eta ganera Elexiaren edergarri ta Kurutzearen gomuta ta neke guria lur onetan zabalduetako berak ipiñi zaitu. Jesus² en irudi bizi ta benetakoa zariana, esku, bular eta oñetako Zaurijekaz adierazoten deuskuzu. Ortik ezagututen da, zeure ikasbiden antzera bizi diren seme ta jarraitzale gartzu laguntasuna gura dabenak zaiñdu, obenian jausitakoak bide onera ekarri ta onak ontasunian obatutako Jaungoikoak altasun andijaz aberastu zenduzala. (1)

S. Prantzisko maitekorra eskatu egizu, Jesus²

(1) Eskari onen eta urrengoan ordiez, azkenian dagoan S. Prantzisko'ren zaurijak goratutako Bureztuna esan leike.

egaz aztuta bizi direnak sinistutera ta Jaungoikoaren agiñduak betetara biurtu daizan.

Elexia sendatuteko eskatu egizu, gaurko arerijoak bera ondatu nairik iñox baño alegin andijagoak egiten dituelako ta euren burua adiskide egin eta ireunduten dabenak izartuteko.

Aita Santu Erromakoen onian eskatu egizu, bere esana beti ta txistik bere egin barik bete zenduan ezkeru.

Azkenez eskatu egizu, zeure seme, jarraitzale gartzu ta iru Zusenbideak zeure itun (consejos) edo esan onenak bete daijezan. Orretara Jesu-Kristo'ren agiñpidea gizatasuaren biotzian erein gizonak argitu ta onian sendatuak izan daizan.

Agur egin eta obeto lagundu daiguzun; dira urrengo

ESKARIJAK

Neure Aita S. Prantzisko zorionekoa, Lenengo Zusenbideari irekatsi zeuntzan ezkeru, zeure eskelatasun, burua menperatute ta bialduen gogo zaletasun gartzua, Jaunari eskatu egijozu, gogoko eskelatasun eta Jaungoikosko goratasunen zaletasuna emon daigula.

Aita geurea... Agur Marija... ta Glorija...

Neure Aita S. Prantzisko zorionekoa. Bigarren Zusenbideari irekatsi zeuntzan ezkeru, zeure eskelatasun, eskarigiñtza ta nekatu guria, Jaunari eskatu egiozu guretzat biar dogun laguntasuna, Jaungoikoaren naija bete, gurari zi-

talak exi ta eskarigiñtziari gogor ekiteko.

Aita geurea... Agur Marija... ta Glorija...

Neure Aita S. Prantzisko zorionekoa. Irugarren Zusenbideari irekatsi zeuntzan ezkerro, zeurre eskelatasun, laztasunen gurarija ta gizonen ez eretxiak onian igarotea, Jaungoikoa gandik ekarri eiguzu, geure obenak ezagutu ta garbaturik, nekegarri ta laztasunakaz Jaunari euren ordea biurtu al izatea.

Aita geurea... Agur Marija... ta Gloria...

IRAKURLEAK ESATEN DAU:—Aita S. Prantzisko geure alde Jaungoikoari eskatu egiozu.

ENTZULAK ERANTZUTEN DABE:—Jesus'ek agiñdurikoak artuteko bestekoak aurkitu gaizela.

Eskarrija.—Neure Jaungoiko maitea, Aita S. Prantzisko'ren semeak geituaz Elexiari erluz barija emoten deutzazun lez, laguntasuna emon eiguzu S. Prantzisko'ren antzera lurreko ondasun eta andikerijak itxirik, zeruko aberastasun betikoak irebazi daiguzan. Alan izan dedila.

GOMUTAGARRIJA.—Nekezale batek emon eutzan artulezko soñekoa jantzita, egun baten Aita Serapiña basartean ebillen Jaungoikoa abeztiyekaz (kantakaz) goratuten. Lapurrak urten eutzen eta arpegi itzelakaz itandu nor zan. S. Prantzisko'k itz entzukur eta argijekaz erantzun eban: *Jaungoikoaren vjugilea naz, izer nai dozue?* Lapurrok ezetariko erzuki barik emon emon egin eutzen eta edurrez beteriko sakon batera jeurti.

eben, esaten eutzela: *Jaungoikoaren ujulari txakila, gelditu zaite or.* Lapurrok joandakoan albo bijetara zirkin egin eban, jagi zan, edurra kenduteko soñekoari eragin eutzen eta atzezin azaldu bere ezin leikean bategaz, gauza guztien Egileari len baño poz andijagoagaz abeztu eutzan. (Tomas Zelano).

BIGARREN EGUNA

Kurutze santuaren...

Maitetasunezko garbaija, 7 garren orri alderdijan.

S. Prantzisko'ri eskarija 8 garrenian.

GOGARTEA.—*Aita S. Prantzisko Serapiñaren zeregiña.*

Elexiaren edergarritzat eta Jesus'en emazte orren alde alegiña egiteko Jaungoiko geure Jaunak gogo banakak lakoak izentetan dituanian, iñori ez lako laguntasun berarizkoak emoten deutzezan lez, baita agiñduten deutzez, zeregin gitxik bete leikezan tarikoak, egiten gatxak direnak eta eurak bakarrik bete leikezanak.

Jaungoikoak gura izanik, Elexia bardiña beti izan da ta gizona dan artean, orrelan azkeneraño iraungo dau. Elexiaren naija egiten, gizonak argalak direlako nagitu ta atzeratu leikez. Ori jazotakoan, barririk onian bizkortu ta sendatuteko akulu gan onekoak biar dira. Asis'ko S. Prantzisko guztis maite ebanari, Jaunak emon eutzan

zeregiña oso goikoa ta ona zan, Jesus'enagaz izan ezik bardiñtasunik eztaukena. Zeregin orren anditasuna agiñdueran bertan Jaungoikoak agertu eban.

Jaungoikoaren naija beti aurrera azkeneraño eroateko biar zituan inderrak Jaunak emon egijozan, Aita S. Prantzisko Serapiña Elexa batera joan zan. Orretan egoala, kurutzearen irudi olian antzestuta egoan batetik urten eban deadar berezko argi bat entzun zan, era onetara: *Prantzisko, zoiatz eta neure etxiari eutzi egiozu, bestela jausi biar dau*. Eguno olakorik entzun ezebalako ta agiñduaren anditasuna ezaguturik, jazoera berezganetiko orrek dartada apur bat emon eutzan.

Orregaz guztias, Jaunaren esana aurrera eroateko egarri andija eukan lez, erabagiten egon barik egiñgo eteban edo ez, entzuna betetan bertatik asi zan. Jaungoikoaren deijari ain arin eta biotzetik erantzun eutzalako, zeruko laguntasun agiñdua betetako biar zituanak beragandurik geratu zan.

Jesu-Kristo'k Jaungoikosko jakiturijaz gizonak zerura joateko untzitzat Elexia ipiñi eban, Jaunak aurretijaz maitetasun benetakoaz erabagirik eukan lez, untzi ori zan S. Prantzisko'k barriztau biar ebana. Jesus'en egitade ori dan lez egokijena Jaungoikoa goratu ta gizatasuna onduteko, alantxerik S. Prantzisko'ren zeregiña bere esan geiñke, amairu garren eunki (siglo) ezkerokoan goratasun andikoa ta guztijentzat irebazi garrija dala.

Jesus'ek satanasen erpietatik kendu, barririk biztu ta Jaungoikoaren seme egiñik gizatasuna barriztau eban lez, Jaungoikoaren agiñduak eta sinistea azturik lozorroan egozanak S. Prantzisko'k izartu (despertar) biar zituan.

Jesu-Kristo'k bere Jaungoikosko zeregiña betetako, bizitsia emon eban. Ezeritako zorrik ezeuskula ta berak nai ebalako Jesus'ek eriotza orretan emon euskun laguntasun neurribagea gizatasunak ezagutu biar eban. S. Prantzisko'k bere, zeruko agiñduak betetako, bere burua ezerztu ta beragandik lurreko gauzak oso kendu zituan, Jaungoikoak emondakoak bakarrik ikusi egijoezan. Orretarako maitetasunezko garrik andijenean urtu zan, Kristo barrija izatera biurtuten zala.

Jesu-Kristo zerutik jatzi zan lez, demoniñoa bere lekutik atera ta kendutera eukan agiñpidea, egitade orregaz angeru donga aitatuak eta bere lagunak artu eben asarre andija baketuteko, kurutzean josteko bere gorputza laketu eban, eriotza gogorra artuten ebala. Geure Egilearen egitade ori apur bat otsitu ta erkinduta egoan lez, S. Prantzisko'k bere, Jesus'en zeregiña biztuteko, Jaunaren maitetasunian amaitu biar eban, Jaungoikosko maitetasunaren egitez kurutzeturik bizi ta ilten zala.

Jesu-Kristoren egitadea gustiz andija dalako, bera ondatu nairik arerijoak alegiña beti egin dabe. S. Prantzisko nekatu ta ezereztua bakarrik Jaungoikoari begira egoan eta leku guztijetan

arrera onagaz gizonak beragana eroaten zituan. Bera bizirik egoala eztabaida batzuk lenengotan bakarrik ikusten ziran, gero bere inguruan are-rijotasun bako abegija beti egon zan. Maite dan gauza batek beragana eroaten daben erara, gizonak beraganduten zituan eta guztijak Jauntzat artuteben.

Jaungoikoaren naijaz batera, oso nekepean, bere buruaz aztuta ta kurutzean josita lez, Jau-nak emon eutzan zeregin berarizkoa bete, Elexia sendatu ta gizartea barriztaurik, gizonak Kristo barritzat artuta Jaungoikoaren Semea lez eurak zerura eroatekotzat ezagutu eben.

Irakurritakoa apur baten gogartetu egizu ta eskatu...
Azkeneko eskarija 11. garren orri alderdijan.

GOMUTAGARRIJA.—S. Prantzisko'k ala andi-jak eukazan eta bere seme batek esan eutzan uneda txarra errezago igaroteko irasti (liburu) on bat irakurri eragin egijala. Aita Serapiñak eran-tzun eutzan: *Niretzat gomuta atzegiñgarrijena Jesus'en Nekaldia da. Il arte neugandik alden-dutea eneuke gura. Lurraren ganian gizonak di-ran arte guztijan bizi banitz bere, beste irakurgeti-rik eneuke naiko.*

IRUGARREN EGUNA

Kurutze santuaren...

Maitetasunezko garbaija 7. garren orri alderdijan.

S. Prantzisko'ri eskarija 8. garrenian.

GOGARTEA.—*Aita S. Prantzisko Serapiñak bere barruan Jesus'egaz eukan antza.*

Jesukristo'ren irudija ipiñita daukan gauzia Jaungoikoak aurrerengo lekuan jarten dau ta irudi ori orniduenan daukenari maitetasun andijena daukotzo. Ortik dator Jesus'en irudi bizi ta egiazkoena dalako ta beren irebazi edo ondasun-tegijak daukezalako, Jaungoikoak Elexiari ain maitetasun andija eukitea.

Elexiaren edergarritzat egiñiko gogo oso maitetuak, antz ori guztis urtena dauke ta ain santuak elitzatekez izango irudija ondo emonda ezpaleuke. Jesus'en antz andija Aita S. Prantzisko'k euki bier eban.

Jesus eta Aitalen Serapiñaren zeregiñak bardiñak izatean Jaunak gura eban lez, alkarren antza eukitea agertuten da. Jesus, Jaungoikoa izatean eta San Prantzisko gizona, alde neurribagea dauke. Bestela, Jesus eta Prantzisko'ren aldia da, bere Egileaz gizonak euki leikean txiki-jenetarikoa.

Jesu-Kristo lurrera etorri zanian, geure aragi ilkorra artutera giño beeratu zan, barriz gogo besteak baño geijago maitetuten danari, banakak egin daroientariko zeregiña emoten bajako,

gizatasunen ganetik, ija berezganetira jazota geratuten da, Jaungoikoak bestien ganetiko zeregiñerako norbait izentetan dabenian, betetako biar daben gustija emoten deutzelako. S. Prantzisko bere, betetako eukan zeregiña, berezganetiko doiakaz apaiñdurik egoan, gizonari emondako zeregiñetatik Jesus'enen antzekoena zalako Santuari emondakoa. Onezkero esan giñaike Jesu-Kristo'ren antzik andijeneko doiakin S. Prantzisko ornidute egoala, gero gizonen artean zabaldu teko.

Jaungoikoaren ontasun eta errukitasuna noragiño eldu leikezan jakitea gatxa da, Jaungoikoaren gauza sakonetan gu ezin sartu giñaitekelako. Ortik dator Jesus eta S. Prantzisko'ren barruetan dagoan alkarren antz guztija ezin aditu izatea. Jesus'ek daukezan gauza bi, bata bere burua ezereztutea ta bestea gizonakanako maitetasuna S. Prantzisko'gan bai aurkitu giñaikez.

Jesus'en oparija (sacrificio) da iruditu leikean gorengoa. Beren naija (voluntad) ezerezturik, Aita Betikoaren eskuetan jarri zan. Opari erluz egiten daben orren ondoan, Kalbarijokoa, beren neke, naibage, atzakabe ta eriotziagaz bardiñdutekoa ezta. Bai, Jesus lere nekaldean oparijen antzbidea dan lez, bere burua oso ukatuteko uste sakon guk ezagutu ezin ginaijenean Zeru lurren begiragarrija (admiración) da. Gizonakana dauken maitetasuna bere, naija ukatuteko zeregiña lako bardiña da. Artuten dituen nekien gogortasunai gitxi deritxoe gizonak maitetuteko

biótzian daukan egarrija betetako. Gizonak gu-
razo maitekorren biotzas maitetuten ditu, geure-
gogoak, Jaungoiko altasun neurribagea dauke-
nen maitetasunaz.

S. Prantzisko'k zerutik artu ebanari esker-
ona deutzelako, burua jagon eta bere adin, begi,
belarri, min eta almen guztijak exiten ditu. Era
orretara Jaungoikoaren naija oso egitera eldu-
zan eta bere burua garbi eskini eutzan, geure
Eroslearen zaurijak Jaunak azaletik ezarri egi-
jozan. Jaungoikoak egiñiko gauza guztiak San
Prantzisko'k bere anaijetzat artu ta biotzetik
maitetuten ditu. Jaungoikoaren irudira egiñiko
gizonak bere maite ditu ta gogo beti iraungo da-
benak, bere burua ezereztu ta kurutzeko nekeak
artutera giño. S. Prantzisko'ren zeregiñari Jaun-
goikoak beti irauteko inñarra emongo deuzo gi-
zonak ain lagiñian maitetu zitualako, ta bere se-
me, ongile ta ontzat emon ta eusten deutzenak
zerura eioatekoa dalako.

Irakurritakoa apur baten gogartetu egizu ta eskatu...
Azkeneko ezkarrija 11. garren orri alderdijan.

GOMUTAGARRIJA.—S. Prantzisko Lurreko as-
muak itxi ta oso zeruko gauzetara jarrita laster,
Andra Marija Angeruena eritxon Elexan nega-
rren pulu ugerijak erijozela ta zotin andijetan
egoan. Itandurik zer jazoten jakon, erantzun
eban: *Jesus'en Nekaldiak naibagetuta nauko.*
Orixe lurraren ganeko gizon guztijen aurrean
egiteak enenduke lotzatuko.

LAUGARREN EGUNA

Kurutze santuaren....

Maitetasunezko garbaija 7. garren orri alderdijan.

S. Prantzisko'ri eskarija 8. garrenian.

GOGARTEA.—*Aita S. Prantzisko Serapiñak azalean Jesus'egaz eukan antza.*

Jaungoiko geure Jaunak alperrik ezebezta-bela egiten adiña dauken edonok ezagutu leikean gauzia da. Jesu-Kristo'ren antz andijak euki zituala S. Prantzisko'k lur onetan bizi zan arte onduten badogu, ortik agertuko da, Jesus'en irudi osoa izateko izentaurik egon zala, ez bakarrik barrutik, ezpabere baita azaletik bere.

Jaungoiko Eroslearen igarlatzia beste batek lez, Fiora'ko Abat entzutetzua Aita Serapiñena egin eban eta Asis'ko egal guztijetan bakea ta zorientasuna (1) deadar egitebana, beren etorrera aurretik bideak leunduko zituana izan zan.

Marija'ren Semea jaijo zanian askatxu baten lasto ganian ipiñi eben, angeruak abestu eutzen, lurra argitu zan eta andik egun gitxira gogo onak iragarri zituen, bere andi izate ta atzaka-beak zelakoak izango ziran. Pika'ren semea bere, aberian tokian jaijo zan, Andra Maria Angeruen Elexan zeruko abesti ederrak entzun ziran,

(1) *Pax et bonum.*

Unbria'ko ibarra argitasun itzugarrijan apur baten egon zan, erbesteko batek kristiñau egiteko besoetan artu eban, aldetakoan belanuen oñotza arrijan itxiten ebala. Andik egun gitxira, zar itzal andiko batek eskatuten dau, jaijo barrija itxi daijoela ikusten, Simon igarleak lez agertuteko, Aita Serapiñak eukiko daben andi izatea ta dongak bera ondatuteko egiñgo ebena. Azkenez kurutzearen agiria bere sorbaldan ezarrita Kristo'ren zaldun egiten dau... Eguzkijaren sortaldetik Bakaldun guztijen Bakalduna gana joan ziran lez, iru Bakaldunen ondorikoak S. Prantzisko jaijota laster bera egoan aberien tokira joan ziran.

Geroago Jesus'ek laguntzat amabi gizon artu zituan, euretatik batek zalduten dau ta zugatz (arbola) baten adarretik dingilizka bere burua urketurik, lurra ta zerua isten ditu, sugarren erdijan betiraun guztijan Satanas'en lagun izateko. Beste irurogeta amabi ikasla, barri ona, au da, *ebanjelioa* zabaldutera bialduten ditu. Maitetasunezko bizitzia, guztis leun eta edonok adituteko erara berak erakusten dau. Bere ikasla maitea S. Juan da eta gizon ato andijak eta emakume santak bere irekatsiak entzun eta betetan ditue.

S. Prantzisko'k bere, amabi lagun batu zituan, euretatik *Kapella* eritxonak alde eutzan eta bere burua urketu eban. Lurraren baster guztijetako gizonai barri ona erakustera irurogeta amabi ikasla bialdu zituan. Bere ikasla maitea

Frai Leon da. Klara, Ines eta beste emakuma onak, barri oneko irekatsi zerukoak betetan dituenak.

Jesus'i ikaslak lez, jarraitzallak dirautze, eskatuten irekatsi daijoela ta S. Prantzisko'k dirautze: *Aita geurean* urrengo esango dozue *Jau-na emen eta lurraren ganeko Elexa guztijetan zeure goratasun eta ontasunak esango ditugu*. Lurraren ganeko izketa guztijetan eskari ori esanda.

Jesus'en antzik ezagunen eta Jaungoikoskoena Zaurijetan dauko. Ikusgarri ordurarte iñok ikusi ez entzun bakoa.

Ilgo zan aurreko egunetan, bere ikasla asko batu ta bere inguruan ipiñi zituan eta lur otzaren ganian soñeko gitxigaz etxunda dirautze: *Bete dot bete biar nebana*. Itune edo irekatsi onenak emon eutzezan eta guztijak onesturik, ogija ekarri eragin eutzen eta apur bana emonda, dirautze: *Jesus'en azkenengo aparijan gomutan ori egiten da*.

Jesus'en erijotzan Madalenia negarrez dago, ta bere gorpua usaiñgarri agunez bete ta lurra emondako lekuan, negarren pulu gorijak jausten jakoz.

S. Prantzisko ildakoan *Jakobetak* negar egiten dau, Bere gorpuari usteldu eztaitean esarteko usaiñgarri agunak erosten ditu ta lurra emondako tokijan angeruen agirija itxaroten egoala, negarren pulu maitetzu ta garbijak urteten deute. Albornia'ko mendijan Kurutzetuaren Madalenia zan gogo ezaugarri berarizko ta gitxiri la-

koak agertu eutzazana. Kalbarijoko mendija zan gorrotogarrija. Jesus'ek bere bizitzia emon eban ezkerro da maitegarrija. S. Prantzisko'ri lurra emondako lekuari inpernuko mendija deituten eutzen. Atzegiñezko tokija Aitalenaren gorpua ipiñi eben ezkerro.

S. Prantzisko'ren barru ta azala begiztatu ta gero esan dana ¿beste santu gaitik agertu ete leike?

Irakurritakoa apur baten gogartetu egizu ta eskatu...
Azkeneko eskarija 11. garren orri alderdijan.

GOMUTAGARRIJA.—Aita S. Prantzisko Serapiñak, bere ikasla bat ikusirik arpegi larrijegaz esan eutzezan itz onek: *Neure anaija, zeure obenen garbaija artutea ondo dala ¿zer dalata azalean zeure naibagea agertuten dozu? Zeure barruko larritasuna Jaungoikoari adierazo egijozu, ta bere errukitasun neurribagearen bitartez eskatu, parkaziñoa artutekoan egon doian pozkarija emon daizula. Bestien eta neure aurrean alai ta pozkaritzu egon zaite, Jaungoikoaren otseña larri ta buruz bera ibiltea ezalako ondo.*

BOSKARREN EGUNA

Kurutze santuaren...

Maitetasunezko garbaija 7. garren orri alderdijan.

S. Prantzisko'ri eskarija 8. garrenian.

GOGARTEA.—*Aita S. Prantzisko Serapiñari*
Zaurijak ezartea.

Zerutik artutako laguntasunakin gogo izen-tautakoak egitade guztis urtenakaz, irebazijak atara baditu, bere burua ezereztu, almen eta izate guztija laztasunakaz exi, gogoko larritasun eta iltamuak igarota. Era orretara lurreko gauzak oso itxi ta Jaungoikoaz bat egiñdakoan, Jaina atzegiñduten da, bere egitadea geijago ta geijago orniduten eta loitasunak garbituteko bialduten deutzos eztutasunik andijenak, ezetariko orban barik urregorri garbija lez ipiñteko.

Era askotara ori egiten dau, bakotxaren bizitzia zelan dan alantxe. Euren sanetako odol guztija emon eta eriotzia artu eben nekalduai, (mártir) alarik gorijenakaz. Geure sinistea autortu ta garbitasunian urtenak izan zirean eta beste santuai, gizonen ez eretxi, barruko ligorkeri, illuntasun eta gogoko iltamu, aragijaren alak eurak baño sarritan eztutasun andijagoak emoten dituenakaz. Zaurijak ezarrijagaz, bere esku, bular eta oñetan Aita S. Prantzisko Serapiñari emon eutzan ordurarte iñok asmau ta ikusi ezeban tariko nekea, gizonen adiñak egitekotzat artu ezin eukielako, naita Asis'ko Santuaren biotzian sakon sartuta egoana izan.

Jesus bakarrik egoalako bere uste (pensamiento) ta almen guztijetan, jazoera ikusgarri andiko orregaz S. Prantzisko berenik ezer ezeukana, Je-

sus'ek oso bereganatu eban. Bere zaurijak emoten eutzezan alak eta betiko gexoak erkindurik egoalako, bere bizitzia ikusgarri andija zan, berezganetiko laguntasun berarisko barik ezin izan zatekiana.

S. Prantzisko'ren zaurijak zeruko laguntasunak izan arren, alatzuak etzirelako amesik bere ezin euki giñaike. Aragija ebaten danian, nai gaizkila batek eskuak eta oñak zulotutakoan artuten diren tariko alak S. Prantziskok euki eroiazan. Aita Serapiñaren alak nekaldu batzuenakaz ezin bardiñdu leikez, bizijago ta iraunkorragoak zirelako ta areri nekien anditasunak iltasuna emoten eutzelako. Ganera S. Prantzisko'ren alen gogortasunak, Jaungoikoa ganako eukan maitetasunaz joteban, eta Jaunak ala andijago edo txikijagoak emoten eutzezan, bere opari ta amaitu naija zelakoak ziran alantxe.

Jesus'en irudi benetakoa izateko, azaletiko, neke orreri ezarri biar deutzaguz, bere barruan igaro zituan eztutasunak. Nekaldutasuna aiñbeste geituten daben alderdi ori ganera ipiñi bierrekoa da. Gogoko bildurrak, ikarak, moteltasunak, larrikuntzak eta iltamuak Jesus'ek igaro zituan.

S. Prantzisko'k esan dan laguntasun barrija arturik sakontasun andijaz ezagutu eban, Jaungoiko Eroslearen erijotzako larritasunak etozela, Jaungoikoak euskun maitetasun andijari txarto erantzutetik; bere nekaldiko irebazijak ez nai izatetik; oben eta erruaren anditasun gorrotogarritik eta gogoak irebazteko aiñbeste igaro biarretik.

Esan diren gauza orrek S. Prantzisko'ren biotz maitekorra larrituteben, eriotzako eztutasunak etorten jakozan eta aragijaren alak eurak baño miñkorragoak diran nekegarriak alaruka ipiñten eben. Orregaz guztijaz Jesus'ek lez neke ta laztasun geijagoen egarrija eukan.

S. Prantzisko zauriak bakarrik ezeben nekatu, Serapiñak esku, bular eta oñak zulotu eutzezanian, ezpabere baita ganeko urte bijan, ariketa il arteko guztijan. ¡Zeru lurrentzako jazoera begiragarrija! Arnaza artueran, edozer egitebanian uneda guztijetan S. Prantzisko zauriak miñdute eben. ¿Jesu-Kristo'ren antz geijago zelan euki-ko eteban?

Irakurritakoa apur baten gogartetu egizu ta eskatu...

Azkeneko eskarija 11. garren orri alderdijan.

GOMUTAGARRIJA.—Itandurik S. Prantzisko Serapiñari, bere begijetako gexo ta gorputzeko ala ain gorriak pozik eta txistik egin baga zelan igaroten zituan. Bizkor erantzun eban: *Ez biar lotzari, ala ta gexo guztijak atzeginñduten nabe, itxaroten dodan zeruko zarija andija izango dalako.*

SEIGARREN EGUNA

Kurutze santuaren....

Maitetasunezko garbaija 7. garren orri alderdijan.

S. Prantzisko'ri eskarija 8. garrenian.

GOGARTEA.—*S. Prantzisko Serapiña ta bere
Lenengo Zusenbidea.*

Asis'ko Serapiñak artutako zeregiña aurrera azkeneraño eroan eta gizonak Jaungoikoa gana begira egijaz ipiñi ta onbideari lekua egiteko, naita ezkoa zan aditutea, zeregin aitetuak berak bakarrik ezin bete eukezala, lagunak egin biar zituala, bere orde z gizonai adierazoteko gogoak zeruratuteko eukan asmu eder eta ornidua. Jaungoikoak aiñbeste onbidegaz ornidu eban ezkerro, baita aberastu biar eban orretarako ondo ziran argitasun eta lagunak egiteko ondo ziran gauzakaz. Jesus'ek lez bere ustea bete nai eban ezkerro, luzaro etzan egon asmetan bere zeregiña zel lan aurrera eroango eteban... Jaungoiko Eroslearen zeregiña barririk biztuteko izentaurik egoan. Ortik dago ezagun, Jesus'en ikasbide ta irekatsijak zabalduetea S. Prantzisko'ren zeregiña izango zala.

Bialdu (apostol) ta lenengo ikaslen bitartes lurraren bazter guztijetara Elexa Santua beiñgo baten zabaldu zan, irebazi andijak egiten zituela. S. Prantzisko'k bardin, bere zeregiña arteztu ta zabalduetea bialdu ta ikaslak euki zituan. Orrek bere Lenengo Zusenbideko Erlijiosoak izan ziran. Euren bitartes lurraren egal guztijetako gizartea Jaungoikoa gana biurtu zan. Eta Jesus'ek Aita Santu Erroma'ko, Gotzai (obispo) ta elex-

gizonen bitartez bere naija ereiten daben lez, S. Prantzisko'k Lenengo Zusenbidearen alegiñaz egiten dau.

Geroagoko jazoerak agertuten daben lez, Aita Serapiñak lenengotik eukazan gauza bat aurrera eroateko biar diran lagungarriak, arrera ona, lagunak beragana begira ipiñi, eroan, arteztu ta egiñari eutziteko al izatea. Jaungoikoaren eskuetan oso jarrita bigarren urterako, bere aspitik guztiriko gizonak egozan. Lenengo amabi lagunakaz bialdutasuna (apostolado) ipiñi ta irurogeta amabira eldu zanian, lurraren bazter guztijetara zabaldu zituan. Bere zeregiñaren lenengo artezbide ta ikasbidea Aita Serapiñak emon eban. Era orretara, bere gogoko Semeari ezarri eutzen zaletasun eta garraz, egal guztijetan irebazi andiak atara ziran geure sinistearen alde, amargarren urterako Zusenbidekoak euren zanetako odola emoten ebela. Orduan S. Prantzisko'k pozkari benetako bategaz esan eban: *Bost praile txikijenetarikoak oraiñtze bai benetan daukedazala*. Jesus'en agiñpidea zabalduetea zan bere uste guztija, naita orretarako zanetako odol guztija emon.

Lenengo Zusenbideko semien bitartez Aita Serapiñak arrezkeroko guztijan gizartea barristetan jarraitu dau. Elexia ondatuteko amezas irekatsi dongak agertu diranian eta gizonak argalak izanik Jaungoikoaren gauzetarako nagitu ta atzeratutakoan, Lenengo Zusenbidean jagi dira Asis'ko Aitalenen seme argi ta gartzuak nekerik andijenak igarota, gextakerija baztertu ta onta-

suna zabaldukoak. Aldapan bera ondatutera joian gizartea geratu, atondu bide onera ta ekandu onari begira ipiñtekoak. Orretariko egitadien inñderrak egun, urte, gizaldi ta luzaroagotan iraun dabe.

Elexiaren jazoeren artean argiro aurkituten da, Lenengo Zusenbidearen bierrunea guztis onadala erakusten daben jazoera bat. S. Prantzisko'ren oñotzari jarraitu deutze bere semeak eta Elexiak laguntasuna edo onerako bizkorgarriren bat bier izan dabenian, Jaungoiko geure Jaunak bates bere S. Prantzisko'ren semien bitartes zeregin ori aurrera eroan dau, adierazoten dabela eurak direla izentauak gizonak barriztau ta Jaungoikoa gana eroatekoak. S. Buenabentura, Sena'ko S. Bernardino, Kapistrano'ko S. Juan, Brindis'ko S. Lorentzo, Portu Maurizio'ko S. Leonardo, Kadiz'ko Diego Jose zorionekoa ta beste asko ta asko esan danen ikasbideak dira.

Geure Eroslearen irudi benetakoa bada Aitalen Serapiña, ta Jesus'enen antzekoa bere zeregiña, bere ustea betetako ipiñi eban eria bere, eurak baño txarragoa ezin izan leike. Aita Serapiñaren zeregiñian, dauken aldiari begiraturik, Lenengo Zusenbidearen egitea da, Elexiaren nagosi direnena lakoa. S. Prantzisko'ren seme guztijen onbide berarizko ta egitadeak, Elexiaren onerako dira.

Irakurritakoa apur baten gogartetu egizu ta eskatu...
Azkeneko eskarija 11. garren orri alderdijan.

GOMUTAGARRIJA.—Asis'ko Gotzaiak bizikera gogor eta estua zala uste eban Lenengo Zusenbideak eroiena, lurreko ondasunak pillauta ezin euki izateari. Uste ori santuari agerturik, onek erantzun eutzan: *Gogorrago ta neketzuago eritxola ondasunak eukiteari, eurak jagon eta zaiñduteko ardura andijen ganera, jazo leikezan ezbaijak erabagiteko armak bere biar izan leikezalako.*

ZASPIGARREN EGUNA

Kurutze santuaren...

Maitetasunezko garbaija 7. garren orri alderdijan.

S. Prantzisko'ri eskarija 8. garrenian.

GOGARTEA.—*Aita S. Prantzisko Serapiña ta bere Bigarren Zusenbidea.*

Elexiaren ezaugarri agirijinetarikoa ta bere izatearen une lez dala adierazoten deuskuna, gogoak santu egin al izatea da. Elexiak santu egiten ditu, nekea ta lana darijoela sinistea zabalduen daben bialduak eta bizitzako zirikada, gorabera ta zaldu erosijetan dabizela bere irekatsi onenak betetan dituenak. Barriz arako gogo bizitza berezganetiko ta angeruena egiñda, gizatasunen begiragarri ta ikasbidetzat dagozanetan santu egiteko altasuna oraiñdik ugerijago ta merdalago agertuten da. Baita gurari zitalak inguruan ugeri jagi arren, eurak goitu ta garbi obenik barik geratutakoetan bere. Garaitza orrek,

burestun (corona) ederrak lez erluz egiten deutzela.

Jesus'en barri onagaz baterakoak direlako bere irekatsijak, Asis'ko Serapiñaren zeregiña bere, santuak egitekoa da. Lenengo Zusenbideko bialdu ta irekaslak, euren zeregiñak beteta santu egiten dira, ta ez edozelakoak. Baita beste kristiñau euren esanak entzun eta betetan dituenak bere.

Aitalen Serapiñaren zeregiñian santu egiteko indarra, bere Bigarren Zusenbidean geijen agertuten da orretarikoan bizikeria galdubide gitxi-jagokoa ta batuagoa dalako. Asis'ko Serapiñak Zusenbide ori lenengos ipiñi ebanian, bere irekatzijak jarten alegiña egin eban, sartuten zan bakotxarentzat ondoen santu egiteko erara. Lurreko izatetik aldendu eban, Jaungoikoa gana eroan eta beragaz atzendute, bide onetik egunoiñok atzerantz egin barik ornidutasun andijenera jazota, Jaungoikoaz batera beti zorioneko izateko.

Jesu-Kristo ezagutu ta maitetutea bada santu ta ornidua izatea, orixe baño besterik nai izan eztaben gogoak dira, Elexako lorategijan gogoen senar aguna geijen atzegiñduten dabenak. Bigarren Zusenbideari S. Prantzisko'k emon eutzezan neurrijak orretarakoxe bakarrik dira. Jesus'en abegi on eta onetsiak geuganatu, bialduak poztu ta gizonak eurekanatuteko lorategi zerapiñia ipiñi eban, S. Prantzisko laztasuna ugeri erabili ebanak.

Lorategi (jardín) orren lenengo lora usain agunekoak zabalduko jarri zanak, beretzako lege, ez zelan biziko zaneke araotegirik (reglas) ezeban euki. S. Prantzisko'ren irekatsi gartzu ta onakaz geroago ta geijago santute zan.

Berari entzuten eutzena gogartetu ta egiñaz, euken iñdera ezagututen eban eta txorta (ramillete) usain aguneko beti ontzat eukitekoak lez, bere alaba ta jarraitzalei emoten eutzezan; orretara Jesus maitetutera elduteko.

S. Prantzisko Serapiñak, Santa Klara Serapiña atara biar eban. Bijak batera jo eben. Jesus Kurutzean josija maitetutea baño beste asmurik ezeuken. Jesus maitearen alde amaituterarte San Prantzisko lanien elduten da, S. Klara adin eta almen guztijakaz Jaungoikoari begira bere izatea amaituterarte.

S. Prantzisko eskelia etzan izan aberastasu-nak kalte egin leizkijoelako ta bere biotza eurenkanatu ta ez atzegiñdutearren, ezpabere bakarrik Jaungoikoa maitetu nai dabelako, ta ori egin ezkerro, besterik bier eztabelako. Anagiazko gurari-jetan garbija eztau nai izan, Jaungoikoak gizonentzat ipiñitako eskontzia itxi ta agiñdu gatxago bat betetearren, ezpabere Jesus al daben giñoan maitetu nai dabelako, ta ori egin ezkerro, besterik gura eztabelako.

Esanekoa eztau nai izan, bere egitadiari ez erantzutearren, ezpabere gauza guztijetan eta beti Jesus'en naija betetearren.

Ara or S. Prantzisko'k zer irekatsi eutzan

Santa Klara'ri ta zorioneko onek bere alabai. Jesus maitetuten gauza guztijak baño geijago. Lurreko gauzak maitetuten, Jaungoikoari maitetasun andija eutzelako. Bizi maitetuteko ta igaro larrikuntza, eztura, samiñtasun ta neke andijenak, Jaungoiko maitekorrari erakusteko beraganako eukan abegia noragiño elduten zan.

Aita Serapiñaren Bigarren Zusenbideak zeruko irekatsi orrek aiñtzat artu ta beteijegaz orain arte lez, Jesu-Kristo'ri ezkiñiteko alaba santak eukiko ditu ta S. Prantzisko'ren goratasun eta bureztuna, Elexa santuaren pozkarija, zeru lurren begiragarrijak eta gizatasunari Jaungoifkosko laguntasun eta onetsiak ekartekoak izango dira.

Irakurritakoa apur baten gogartetu egizu ta eskatu...
Azkeneko eskarija 11. garren orri alderdijan.

GOMUTAGARRIJA.—Aita Serapiñari bere seme batek eskatu eutzan onbidean aurreratuteko iras-tirik onena izentau egijola. Erantzun eutzan era onetara: *Kurutzea aspertu baga irakurri egizu, ezegijozue jaramonik egin lurreko ta alperriko gauzak dankezan irakurgeai ta jakiturija guzurrezkoetatik aldendu ezkeru zorionekoa izango zara.*

ZORTZIGARREN EGUNA

Kurutze santuaren....

Maitetasunezko garbaija 7. garren orri alderdijan.

S. Prantzisko'ri eskarija 8. garrenian.

GOGARTEA.—*Aita S. Prantzisko Serapiña
ta bere Irugarren Zusenbidea.*

Lenengo ta Bigarren Zusenbidien bitartez gizarte (sociedad) barriztetako bideak Aita Serapiñak guztis leundurik eukazan lez, gizatasunak laster ezagutu eban, ondo zer etorko jakon. Ortik S. Prantzisko'ren seme ta jarraitzallak asko izanik geroago ta geijago egunaro geitutea gizon gurari onekoakaz.

S. Prantzisko'ren ornidutasuna (perfección) edonoentzako etzan. Gizon egileak, edozetarako zirenak eta beti aurrera jarraituten oitutekoak izanda bere, atzerantz egiteben, uste ebelako euren lengo egiñbideak (obligaciones) bete ezkerok, barriak eziñgo zituela. Orregaz guztijaz Kristo barriari jarraituteko gizarteak eukan gar andija ñok geratu?... Gar ori aurrera eroateko galazomena egoan, uste izatean gizonen artean bizi ezkerok, ornidutasun ain andira elduteko amesik bere ezin artu eukiela ta ganera ordurarteko bizikera ta ondasun guztijak itxi biar zituela. Gixi jakiñak orixe sinistute egozan. Uste eben, ikasten ebizanak, jakitunak ta bakartegijetan (conventos) egozanak bakarrik santu egin leikezala, besterik ez. Ordurarte iñok aiñbeste ikusi gura izan ez bazituan bere, ortik bakartegijetan egozaneanako abegi ona etorri zan.

Irekatsi ta arao ornidutasunekoak eskatuten

S. Prantzisko'ren inguruan lagun ato andijak batuten ziran, eta gaxenak izanda bere, egiteko gar andijaz jarraituten eutzen. Ain bere aldekoa zan eretxi orrek, S. Prantzisko'ri bide zabala edegi eutzan bere gurari Jaungoikoskoa betetako. Bakarrik jakin nai eban, lurreko ondasunak itxi, ta gizartetik alde barik bete eukezan edo ez.... ezaguturik egin eukezala, gizon eta emakume guztijentzako Irugarren Zusenbidea ipiñi eban. Elexiak bere magalpean Adan'en seme alaba guztijek artuten dituan lez, S. Prantzisko'k bere Irugarren Zusenbidea ipiñi eban kristiñau guztijek bertan sartu leikezan erara, berak izentauriko irekatsi ta neurrijek bete ta zerua irebazi egijen.

Era orretara onbidearen eretxi erratua eukirik ornidutasunera ezin eldu leikezala uste ebe-nak poztuta ipini zituan eta Irugarren Zusenbideari abegi ona egiten eutzela. Pozkari ori maitetasun eta arteztasunaren egitadia zan lez, Jaungoikoaren agiñduak betetea S. Prantzisko'k bere ordezkatuteban eta zeregin orretan beti alegiña egitea, arerijoak goitu ezegijezan. Leku galbidekoetatik alde egijela, euretako arrizkuetan jausi ezeitezan. Lurreko ondasunak euki arren, eurari begira larregijan ez egoteko, ta edozetara bere, biotza eurakanatu barik eukiteko. Gorrotorik iñori ez izateko ta arerijoak eurak bere, samurtasun andijaz maitetuteko, bestela etzirela elduteko nai eben ornidutasunera.

S. Prantzisko'k bakarrik egin eban, barri ona

(evangelio) egitez barririk irekatsi, orretarako ipinten zituela edonun eta edonok berera betetako neurri egile ta era egoki itxi ezin leikezanak. Irugarren Zusenbidea era orretara sortu zan.

S. Prantzisko'k Zusenbide orreri emon eutzezan irekatsi jakitun eta araoakaz santu egiñdakoak ezin esan leike zenbat direan, eta ori ez bakarrik Asis'ko Serapiña bizirik egoala, zerura bide barrija izanik edonok abegi ona eutzanian, ezpabere baita beti arrezkeroko guztijan.

Prantzia'ko Bakaldun S. Luis; Hungria'ko Santa Isabel; España'ko S. Fernando; S. Elzear eta Santa Delpina senar emazte oso garbijak eta beste asko ta asko S. Prantzisko'ren Irugarren Zusenbidekoak zirean.

Teatinoak, Pilipentzak, Eskolapioak, Pasionistak, Salesa ta Maitetasunezko alabak euren erlegiñoetako araoak Irugarren Zusenbidean artu zituezan.

Jioto, Zimabue, Murillo, Palestriña, Gounod, Tasso, Balmes eta beste geijagok Zusenbide orretan argitasuna aurkitu eben.

S. Prantzisko'k ipiñitako araoak barri zaleak ain egokitzat artu eleikezalako, S. Prantzisko'ren eskubideakaz bere Zusenbideko seme argi batek oraiño biar izenari arpegi emoteko bestean jarri ditu, gastetu ta merdaldurik geratuten direla ta S. Prantzisko'ren egunetakoakaz bardiñdu leikezan irebazi mamiñtzu ta andijak gaur emoten ditue.

Gaurko biar izanakaz batera dagozan ezkerro

Irugarren Zusenbidean sartuteko atxakijarik inok ezin euki leike.

Bestetik Erromako Aita Santuak bere, sarritan esan dabe, Irugarren Zusenbidean sartu gaitela ta ikusten dogunak erakusten deusku, kristiñauak alkar maitetu ta orniduteko batzar onadala.

Irakurritakoa apur baten gogartetu egizu ta eskatu...
Azkeneko eskarija 11. garren orri alderdijan.

GOMUTAGARRIJA.—S. Prantzisko zeruko zereginian jarrita laster, leitu, zurdatu edo izostuta egoan sakon uneda baten negu erdijan sartu zan, bere burua exi ta bere gogoko garbitasun argija galdu ezegijan. Jazoera ori ikaslai adietan emoteko, esan eutzen: *Biotzeko gurari zitalen berotasuna apur baten eukitea baño, erlijioso baten tzat gorputzeko otz larregija igarotea obia da.*

BEDERATZIGARREN EGUNA

Kurutze santuaren...

Maitetasunezko garbaija 7. garren orri alderdijan.

S. Prantzisko'ri eskarija 8. garrenian.

GOGARTEA.—*S. Prantzisko'k bere Zusenbideai egiten deutzen laguntasun berarizkoa.*

Jesus'ek aspertu baga ta ardura andijagaz Elexia zaiñdu ta jagoten daben antzera, areri-joak eguno aspiratu ta goituko eztaben bestean,

S. Prantzisko'k bere onbide goratu ta Jesuseganako uste oso ta maitetasun gartzuen zaritzat, geure Erosleak berez emon eutzan altasun egikorraz, Zusenbide Serapiña jagoten dau. Jesu-Kristo'k antzbide jarraitutekoa Margarita Maria Alakoke'ri aurrean ipini eutzanian, esan eutzan, S. Prantzisko'ren bitartes eskatuten eban guztija eskuratuko ebala, bere biotza geijen maitetuteko santua dalako ta bere antz andijena eukirik, Jaungoikoaren Arteztasunari bere gogoa Jesus'en biotzas bat egin eta eskiñirik eukelako, geure Jauna gandik ekarteko ondo bizi diranentzat onian irauteko maitetasun eta laguntasuna ta gextoentzat errukitasuna.

Asis'ko Serapiñak bere egitadea oñian eukiteko daukan altasunaz alegiña egiten dau. San Prantzisko'rentzat egitade ori da bere kutuna, bere irudi bizija, ta Jesus'i eskiñitakoa berari emon eutzezan laguntasunen orde ez eta Jaungoikoaren egitadea izanik, bere goratasuna zabaldu teko dalako, guztis asko maitetuten dabena. Orretara Jaungoiko irubider santu aiñbeste gizalditan zeruko laguntasunez ornidu dabinari esker ona erakusten deutzo.

Iru agintzari gitxik euki daroiazan tarikoak Jesus'ek bere zeregiñen alde egin eutzezan. Lenengoa, Zusenbidean zenbateta lagun geijago izaten ziran, bier ebena aiñbat eta ugerijago emongo eutzela. Bigarrena, semietatik batek bere jantzija ezebala kenduko, artutako bizitzari erantzuten beutzan. Irugarrena, bere Zusenbi-

dien arerijo, txarto esala ta baketan itxi gura ezeutzenen ganera jausiko zirela, Jaungoikoaren gogortasunak, eta egun gitxitako bizija ta erijotza txarra izango ebela.

Serapiñak bardin S. Prantzisko'ri bost zauriak edegi eutzezanian, beragaz eukan antz andi ta eutzan maitetasunaren ezaugarritzat, bere zeregiña goratuteko beste iru agiñtzari egin eutzezan. Lenengoa, lurraren ganian gizonak egozan arte guztijan Zusenbideak iraungo ebala. Bigarrena, bere Zusenbidean luzaro ezebala iraungo bizikera galduan jarraitu nai ebanak. Irugarrena, Jaungoikoaren errukitasunaren bitartez, dongena izanda bere, Zusenbidea maitetuten ebanak garbatuteko lekua izango ebala.

Orren antzeko agiñtzarija da, Santuak zeruko apaiñdurijaz beterik eta ego erluz egitebanakin erlijioso bateri agertu jakonian egiñdako esan eutzanian: *Ego onek adietan emoten dabe, Jaungoikoa gandik artu dodazala zeruko doiak, neure erlejiño zorionekoaren jarraitzale gartzuen alde alegiña egiteko euren eztualdi ta bier izentan deituten badeuste.*

Ez bakarrik bizi diren arte, ezpabere baita il da gero bere, S. Prantzisko'k bere seme ta jarraitzale bakotxen eta guztijen alde alegiña egiten dau.

Bere lagunaren gogoia erlijioso batek garbilkuan ikusi eban eta Aitalen Serapiña lurrian auspazturik eskatuten bere seme aitetua su gararetatik atara egijala. Eskarija alperrik egin

eban. Azkenez Aita Serapiñak zaurijak agerturik, Jaunari bere aurrean ipiñi eutzezan, eskatuten eutzala zaurijak emondako alen alde, gogo aregaz errukitu zedila. Orduan Jesus'ek erantzun eutzan: *Neure errukitasunaren aberastasunak emongo deutzudaz, eta orain eske zagozana bere bai, gizonen alde alegiña egiteko ezarri neutzuzan zaurijak erakutsi deustazuzalako.*

Garbilekuan egoala esan dan erlijiosoa, orduantxe zusen zerura joan zan.

S. Prantzisko'ren altasuna iru zusenbide, ongile, berari adi dagozan eta jarraitzale gartzuakz olakoxe egilea agertuten da, baita bere arerijo, lotzatu ta goitu nai dabena goituteko bere. S. Prantzisko ta bere semien zaspireun urteko egitadeak argiro erakusten dabe, Asis'ko Serapiñak altasun bardiñik eztaukenaz bere seme ta aiñbakoari lagunduten deuzena.

Irakurritakoa apur baten gogartetu egizu ta eskatu... Azkeneko eskarija 11. garren orri alderdijan.

GOMUTAGARRIJA.—Asis'ko S. Prantzisko'k bizirik egoala emon zituan onetsijetatik (bendiciones) zamurrena izan zan, oian lerro etxunda erio-tziari begira egoan unedan azken agurra lez an egozan seme bakoxtari emon euzena ta gero izango ziran guztientzat bere, izatea nai ebana. Tomas Zelano'k erakusten dau era onetara: *Aita Serapiñaren inguruan guztijek jarri ziran. Buruen ganian bakoxtari bere eskoiko eskua ipiñi eutzan eta onestu zituan bere urrengoan asi, aurrean*

*egozan eta aurrerantzean gizaldijak irauteber
arte izango ziran guztijek.*

Aita S. Prantzisko Serapiñaren Zauriak goratuteko Bureztuna ⁽¹⁾

Kurutze santuaren....

ESKIÑTZARIJA

Neure Jaun eta Jaungoikoa, zeure Jaungoiko-
kosko jarleku altzuaren aurrean auspazturik,
neure gogo ta biotzaren barru barrutik gurtuten
(adoretan) zaitut.

Aita S. Prantzisko Serapiñaren esku, bular,
eta oñetan edegi zenduzan zauri zorionekoen go-
mutan, neure almenak euki al leiken garrik an-
dijenagaz eskatuten deutzut, zeure otseña gartu
ta amaitu eban maitetasuna neure bularrian biz-
tu daizula bere oñotzari jarraitu ta lurreko gau-
zak itxirik, bizitzako estasun eta laztasunak
onian igaro daidazan eta zeure Nekaldiko atza-
kabe ta miñgostasunak nigana etorri daizan.

I. Orretarako, zeure otsein eta neure Aita
S. Prantzisko'ren eskerreko oñian edegi zenduan
zauri alatzua Jaungoiko guztija al dabenari eski-
ñiten deutzat. Beragaz igaro zituan ala guztijen

(1) Onek eta urrengo dagozan eskabideak Aita Serapiña goratu-
teko ipiñirik dagozan jaijetan batez bere esan leikez. Esaterako iri-
laren 17.^{oa} Zauriak gomutaneran....

gomutan emon egidazu, neure orain arteko erruguztien garbai benetakoa, ta laguntasuna neure oñak betiko ondamendira joateko bidetik ibili eztaitezan.

Aita geurea... Agur Marija... ta Glorija...

II. Neure Jesus ona, zeure otsein maite ta neure Aita S. Prantzisko'ren eskoiko oñian edegi zeunduan zauri ala gorikoa bigarren eskabide onetan eskiñiten deutzut. Zauri orrek emoten eutzezan ezbiar eta ala onian igarrotekoen gomutarako apal-apal eskatuten deutzut, sendatasuna onbidean beti aurrera jarraituteko, ta laguntasuna orretan azkeneraño iraun eta gero zerura joateko.

Aita geurea... Agur Marija... ta Glorija...

III. Jesus maitea, zeure otsein maite ta neure Aita S. Prantzisko'ren eskerreko eskuan edegi zenduan zauri miñberea irugarren eskabide onetan eskiñiten deutzut. Bertatik emon eban odolaren gomutan apal-apal eskatuten deutzut, azkenengo egun ikaragarrijan, neure egitadeak zelakoak izan direan agertueran, lotzaturik eta eskerreko alderditik dongakaz enaitiela aurkitu.

Aita geurea... Agur Marija... ta Glorija...

IV. Jesus maitea, zeure otsein maitegarri ta neure Aita S. Prantzisko'ren eskoiko eskuan edegi zenduan zauri odoltzua, laugarren eskabide onetan eskiñiten deutzut. Esku orregaz egin zitan egitade andijenetarikoen gomutan, zeure

agiñdu santuak betetako inñarra emon egidazu azkenengo egun ikaragarrian onakaz eskoiko alderditik egoteko bestekoa aurkitu najan.

Aita geurea... Agur Marija... ta Glorija...

V. Neure Jesus maitea, zeure otsein maitekor eta neure Aita S. Prantzisko'ren bularrian edegi zenduan zauri begiragarri ta ona bozkarren eskabide onetan eskiñiten deutzut, Bere gogoa gartuten eban maitetasun sutzuaren gomutan apal-apal eskatuten deutzut laguntasuna emon daidazula, neure uste ta abegija bizi nazan arte guztijan izan daizan zeure esanak egin ta zeu maitetuteko, gero zeruan zeugaz batera atzegiñetan egon naitean.

Aita geurea... Agur Marija... ta Glorija...

Irakurleak esaten dau.—Jauna, S. Prantzisko'ri zauriak ezarri zeuntzezan.

Entzulak erantzun.—Geure Eroslearen ezau-garriak ziretako.

ESKARIJA.—Neure Jesus maitea, S. Prantzisko zorijonekoaren aragijan zeure Nekaldiko zauriak edegi zenduzan, gizonak zeuganako otzitasuna euken lez, euren biotzak zeure maitetasunaren suaz berotu zaitez. Bere irebazi ta bitartekotasunaz inñarra emon eiguzu, Kurutzea aspertu barik eroan eta laztasunakaz obenen orde biurtuteko. Betiraun gustijan Aita ta Espiritu Santuaz bizi ta agiñduten dozun Jaungoiko bakarra. Alan izan dedila.

S. PRANTZISKO'RI ESKARIJAK

- Santa Marija;
S. Prantzisko Zusenbide Serapiña ipiñitakoa;
S. Prantzisko, gurazo maitekorra;
S. Prantzisko, gurazo begiragarrija;
S. Prantzisko, gurazo ongilea;
S. Prantzisko, gurazo lotza onekoa;
S. Prantzisko, Jesus'en naija zabalduen ur-
tena;
S. Prantzisko, Jesus kurutzekoaren zalduna;
S. Prantzisko, Jaungoikoaren Semiaren an-
tzekoa;
S. Prantzisko, Serapin gartzua;
S. Prantzisko, maitetasun santuaren una;
S. Prantzisko, santutasunaren troxia;
S. Prantzisko, garbitasunaren untzija;
S. Prantzisko, ornidutasunaren antzbidea;
S. Prantzisko, Arteztasunaren araoa;
S. Prantzisko, garbitasunaren ispillua;
S. Prantzisko, eskelatasun santuaren senarra;
S. Prantzisko nekearen antzbidea;
S. Prantzisko apaltasunaren ikasbidea;
S. Prantzisko, esanekoen irekaslea;
S. Prantzisko, angeru aguna;
S. Prantzisko, onbide guztijen antzbidea;
S. Prantzisko, eskelen Aitalena;
S. Prantzisko, bake zalea;
S. Prantzisko, lureko gauzak gitxitzat eukija;
S. Prantzisko, gextakerijen arerijoa;

- S. Prantzisko, bere erriko argi erlutzua;
- S. Prantzisko, demoniñoak goitutekoa;
- S. Prantzisko, gogoak zeruratuteko gar an-dikoa;
- S. Prantzisko, itzuen argija;
- S. Prantzisko, illen biztutzallea;
- S. Prantzisko, gexoen bizkortzallea;
- S. Prantzisko, gexoen ozagillea;
- S. Prantzisko, sarnatijen otseña;
- S. Prantzisko, Bakaldunen ganetiko ujugilea;
- S. Prantzisko, ertegijen argija;
- S. Prantzisko, maitetasunezko nekaldua;
- S. Prantzisko, kurutzearen maitetzallea;
- S. Prantzisko, siniste bakoen irakaslea;
- S. Prantzisko, sinistearen zabaltzallea;
- S. Prantzisko, Elexearen maroagia;
- S. Prantzisko, siniste bakoen mallua;
- S. Prantzisko, lege barriko Abraham bere on-doriko ugerijak daukezalako;
- S. Prantzisko, Jesus lez zauritua;
- S. Prantzisko, deituten deutzenen laguntzalea;

Eskatu gugaitik

ESKARIJA

Jaungoiko geure Jauna, S. Prantzisko'ren semeak ugerituaz Elexiari erluz barrija emoten deutzazun lez, indarra emon eiguzu S. Prantzisko'k lez itxirik lurreko andiuste ta aberastasu-nak Jesu-Kristo geure Jaunagaitik zerua irebazi daigun. Alan izan dedila.



Nihil obstat

D.^r Petrus Menchaca.

Censor.

Victoriæ 24 Junii 1913

IMPRIMATUR

L. S.

† *Jóseph*, Episcopus Victoriensis.

IZTOKIJA

A.

- Auspaztu.** Belaunbikotu ta apal-apal beste baten aurrean egotea itzal andija agertuten deutzagula. **Postrarse.**
- Antzeztu.** Beste baten irudija egin edo agertutea. **Pintar.**
- Antzbidea.** Gauza bat ikasbide edo neurritzat artutea, beste bera lako bat egiteko. **Modelo.**
- Araoa.** Geure egitadeak arteztuteko neurrija. **Regia.**
- Artule.** Ardi uleakaz egiñiko miesia. **Sayal.**
- Abesti.** Deadar edo zarata ondo egitea. **Canto.**
- Äberia.** Idi, bei ta beste onetarikoai emoten deutzaguen izena. **Ganado.**
- Apaiñdu.** Gauza bat ondo jantzi edo ornidutea. **Adorno.**

E.

Eunki. Eun urteko unedia. **Siglo.**

Egiñbidea. Egijuna aurretik egiñdakoa edo nagosijen agiñdua betetea. **Obngación.**

Ele. Geure ustea agertuteko itza. **Palabra.**

Elexgizona. Jaungoikoaren gauzak Elexan eta bestela, arteztu, zabaldu ta zaiñduten dituana.

Sacerdote.

Eskiñtzarija. Zerbait emotia norbaiteri lagundu daigun. **Ofrenda.**

Eroslea. Norbait askatu ta noberagandutea. Sata-nas'en aspitik, Jesus'ek gizona atara ebala adierazoteko bates bere itz ori oituten da. **Redentor.**

Ertegi (Erri-tegi). Erri askotako lagunak bateratutea edo alkarregaz bizitea. **Nación.**

I.

Ikastegija. Zerbait ikasten atoa batuten dan tokija. **Escuela.**

Ikasbidea. Onbidean nai beste edozer gauzatan, ikasgarritzat zerbait artutea. **Ejemplo.**

Ikusgarrija. Izate edo jazoera urtena. **Prodigio.**

Iltamua. Eriotza aurreko unedia, edo bere antzeko egoeria. **Agonía.**

Iragarri. Zerbaiten barrija agertutea. **Anuncio.**

Ireuna. Norbaiteri txarto egitea, batez bere esanaz. **Ofensa.**

Ireundu. Asarratu eragitea. **Ofender.**

Izartu. Ezta irazartu. Zer egiten daben eztakijena, nai lo dagoana, bere senera ekartea. **Despertar.**

Irasti. Zapi edo papel pillo josi ta eztaigi duna. **Libro.**

Irastegi. Irazti asko dagozan tokija. **Biblioteca.**

Ituna. Gauza bat egin edo isteko eretxija artutea. **Consejo.**

Onetsia. Eskabide edo egikizunen baten bitartes, gauzaren bat ondu edo dauken txartasuna kenduteko alegiña egitea. **Bendición.**

Oparija. Zerbait egin edo eskiñitia Jaungoikoari, nai edonori, beren alde edo nagositasuna eza gututeko. **Sacrificio.**

Onbidea. Jaungoikoaren gauzetarako gurari bizi ta egilea eukitea. **Virtud.**

Oben. Esatea, egitea edo gura izatea zerbait Jaungoikoak nai eztabela. **Pecado.**

Ujugilea. Artezlarijen alde alegiña egiten dabena. **Heraldo.**

Ujulari. Artezlari nagosijaren gauzak zabalduetea. **Pregonero.**

Urtena. Lagunak baño buru argijagoa eukirik, gauza andijagoak egiten dituana. **Sobresaliente, héroe.**

Garaitza. Arerijo bat edo geijago aspiratutea edo egikizun gatxen bat aurrera eroatea. **Victoria.**

Garbaija. Noberen obenari gorrotoa artu ta eurak istea. **Dolor, arrepentimiento.**

Gizatasuna. Gizonen izatea bera. **Humanidad.**

- Gogartea.** Noberen buruan ustea eijotea. **Meditación.**
- Gogoa.** Agakian (euskerazko lenengo **Abecedarioa.** Elexiaren baija daukana) ipiñi neban zala «adiñak ezaupidea emonik ontzat edo txartzat edozeren erabagia artuten daben almena voluntad.» Gaur **arima** itzak erakusten dabena adierazoteko batzuk oituten dabe. **Alma.**
- Gotzaija.** Elexgizon eta kristiñau barruti (diócesis) izentauen barruen dagozanen buruak, Jaungoikoaren gauzak eurari dagokezan lez zabalduetako. **Obispo.**
- Gurtasuna.** Jaungoikoa goratutea bates bere, ta beragaitik Marija oso garbija ta santu santak. **Adoración.**
- Neurribagea.** Azkenik ezetan eztaukena. **Infinito.**
- Nekaldea.** Ala, ez biar eta nekeak igarotea. Itz orregaz, Jesus'ek igaro zituan neke ta eriotzea adituten dira. **Pasión.**
- Nekaldua.** Sinistearen alde, Jesus'ek lez neke, naibage, ezbiar ta eriotzea artuten dituana. **Mártir.**
- Lorategi.** Onbideari jarraituten deutzen atoa edo lora asko dagozan tokija. **Jardín.**
- Zirikadea.** Beste bat bide txarrera begira ipiñtea edo zerbait egiteko izartutea. **Tentación.**
- Zugatz.** Aretx, sagar, nai beste orrelako edozein zetarikoa dan esan barik adituten emotea. **Arbol.**
- Zusenbidea.** Gauzak urrengorik urrengora eurari dagoken lekuetan ipiñtea, era orretara gizonak

zerura eroateko. **Orden.** Itz au gauza asko adierazoten emoteko oituten dalako bere ordez ipiñi dot **Zusenbidea.**

Zurra. Bizkorra, gauzak arin aditu, arteztu ta egiten dituana. **Listo.**

Txorta. Usain aguna dauken, nai beste edozetarikoko gauza pilloa, alkarregana egoki batuta ipiñtea. **Ramillete.**

Maroagia. Arri bakar edo askogaz, nai sur biribil eta beeti gorakoaz, goijen dagoan beste gauza baten eutzigarri utzunean ipinten dana. **Columna.**

Bakalduna. Gizonak arteztu ta ganera euren agiñpidea daukena. **Rey.**

Bakartegija. Erlijioso ta erlijiosaren bizilekua. **Convento.**

Begiragarrija. Ornidutasun andiko gauzia edo nobera eurakanatutea. **Admirable.**

Bigiztatutea. Ardura andijaz gauza bat gogartutea. **Considerar.**

Berarizkoa. Bestek eztauken tariko gauzia edo agiñpidea daukena. **Especial, singular.**

Berezganetikoa. Lur onetako gauza edo egitien ganetik dagoana. **Sobrenatural.**

Bialdua. Bates bere Jesus'en lenengo amabi lagunetariko, ta eurak lez sinistea zabal duten urte-nak direanai esaten deutzague. **Apóstol.**

Bureztuna. Gauza biribil eta geijenean erdija utzik euki daroiana. **Corona.**

ARGIBIDEA

Orrri alderdija

Sarrera	3
LENENGO EGUNA. Maitetasunezko garbaija	7
S. Prantzisko'ri eskarija	8
GOGARTEA. Aita S. Prantzisko Serapiñaren zeregi- ña aurretijaz erabagirik egoan	9
Egunaro azkenian egiteko eskarija	11
GOMUTAGARRIJA	13
BIGARREN EGUNA. GOGARTEA. Aita S. Prantzisko Serapiñaren zeregiña.	14
GOMUTAGARRIJA	17
IRUGARREN EGUNA. GOGARTEA. Aita S. Prantzis- ko Serapiñak bere barruan Jesus'egaz eukan antza	18
GOMUTAGARRIJA	20
LAUGARREN EGUNA. GOGARTEA. Aita S. Prantzis- ko Serapiñak azalean Jesus'egaz eukan antza	21
GOMUTAGARRIJA.	24
BOSKARREN EGUNA. GOGARTEA. Aita S. Prantzis- ko Serapiñari Zaurijak ezartea	25
GOMUTAGARRIJA	27
SEIGARREN EGUNA. GOGARTEA. S. Prantzisko Se- rapiña ta bere Lenengo Zusenbidea	28
GOMUTAGARRIJA	31
SASPIGARREN EGUNA. GOGARTEA. Aita S. Pran- tzisko Serapiña ta bere Bigarren Zusenbidea	31
GOMUTAGARRIJA	34
ZORTZIGARREN EGUNA. GOGARTEA. Aita S. Pran- tzisko Serapiña ta bere Irugarren Zusenbidea	35
GOMUTAGARRIJA	38
BEDERATZIGARREN EGUNA. GOGARTEA. S. Pran- tzisko'k bere Zusenbideai egiten deutzen lagun- tasun berarizkoa	38
GOMUTAGARRIJA	41
Aita S. Prantzisko'k Serapiñaren Zaurijak goratu- teko Bureztuna (Corona)	42
S. Prantzisko'ri eskarijak	45
Iztokija.	47



ZALDUERA

Aita S. Frantzisko'ren Bederatziurren bakotxa lau txikijan, zalduko da. Eun artu ezkeru ogei zaritzat emongo dira.

Bederatziurren ori egin dabeneana da: Irakaskintziaren (dotrina) lenengo ezaupideak ume gastetxuentzako Aita Santu X-garren Pio-na.

Bakotxa txori txiki baten emongo da, ta euneko ogei zaritzat.

SAN INAZIO'REN EJERTZIJUAC au da **ONDO CONFESAU TA COMULGAUTEN IRAKAZ-QUIZUNAC**. Jesusen Lagundico A. Candido Basa be'cuac Ejerzijo ta Misiñuetan Azalduten dauzan leguez. Auxe da baserrietaraco Mesa liburuen artean egoquienera; ta orregaitic ezteitela gure Vitecai'co baserrietan inor guelditu beran erosi bario.

Salteen da bacocha bost errialen DURANGO N Elosu'ren echean.